

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko urria

2025eko urrian Euskal AEko landetxeetan igarotako ostatu-gauak % 15,2 igo dira, apartamentu turistikoetan igarotakoak % 19,4 eta aterpetxeetan igarotakoak % 22,8

Aterpetxe turistikoetako plazen arabera okupazio-maila % 41,3koa izan da, apartamentu turistikoetakoa % 39,7koa eta landetxeetakoa % 27,2koa.

Euskal AEko **landetxeetan** sarreraren kopurua % 14,1 igo da aurreko urteko hil beraren aldean, eta ostatu-gauena % 15,2, Eustatek landutako datuen arabera. Urte batetik bestera izandako aldaketa horiekin, sarreraren kopurua 17.755 izan da urrian, eta ostatu-gauen kopurua 36.528 izan da guztira.

Euskal AEko landa-ostatu-etako sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Urria 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betezte-mailak (%)			
	2025/10	m/m-12 (%)	2025/10	m/m-12 (%)	2025/10	2024/10	plazen arabera		gelaka	
							2025/10	p.p. *	2025/10	p.p. *
EUSKAL AE	17.755	14,1	36.528	15,2	2,06	2,04	27,2	3,7	32,5	3,8
Estatukoak	13.254	14,3	26.517	15,6	2,00	1,98	-	-	-	-
Atzeritarrak	4.501	13,4	10.011	14,1	2,22	2,21	-	-	-	-
Araba/Álava	4.170	16,5	8.040	13,9	1,93	1,97	24,9	4,1	29,9	3,7
Estatukoak	3.636	14,1	6.767	12,5	1,86	1,89	-	-	-	-
Atzeritarrak	534	36,9	1.273	22,2	2,38	2,67	-	-	-	-
Bizkaia	5.254	12,8	9.490	-2,5	1,81	2,09	24,3	-1,1	29,9	-0,7
Estatukoak	3.846	20,1	7.104	7,8	1,85	2,06	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.408	-3,4	2.386	-24,2	1,69	2,16	-	-	-	-
Gipuzkoa	8.331	13,6	18.998	27,3	2,28	2,04	30,2	6,4	35,6	6,9
Estatukoak	5.772	10,8	12.646	22,4	2,19	1,98	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.559	20,5	6.352	38,4	2,48	2,16	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko urriaren aldean % 13,4ko igoera izan ondoren, 2025eko urrian Euskal Autonomia Erkidegoko landa-ostatu-etan izandako sarrera guztien % 25,4 atzeritarren sarrerak izan dira. Ostatu-gauen kasuan, bestalde, guztizkoaren % 27,4 izan dira atzeritarrenak, 2024ko urrian baino % 14,1 gehiago.

Lurralde historikoen arabera, sarrerak % 16,5 igo dira Araban, % 12,8 Bizkaian, eta % 13,6 Gipuzkoan. Ostatu-gauetarako dagokienez, Araban % 13,9 igo dira eta Gipuzkoan % 27,3; Bizkaian, berriz, % 2,5 jaitsi dira urtetik urterako datuen arabera.

Euskal AEko establezimendu mota horretan batez besteko egonaldia 2,06 egunekoa izan da 2025eko urrian, aurreko urteko hil berean izandako 2,04 eguneko batez besteko egonaldia baino zertxobait handiagoa¹.

Plazen arabera okupazio-maila 2024ko urrian lortutakoa baino % 3,7 handiagoa izan da, guztira % 27,2koa hain zuzen. Logelen arabera okupazioa, bestalde % 3,8 puntu igo da urte batetik besterako datuen arabera, eta azken hilabeteen % 32,5ekoa izan da.

Apartamentu turistikoei erreparatuta, 2025eko urrian 25.302 sarrera izan dira, eta ostatu-gauak 74.889 izan dira. Datu horiek aurreko urteko urrikoekin alderatuz gero, sarreraren kasuan igoera % 32,5ekoa izan da eta ostatu-gauen kasuan % 19,4koa.

Apartamentu turistiko² esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten ardurapean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Urria 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamentuak	
	2025/10	m/m-12 (%)	2025/10	m/m-12 (%)	2025/10	2024/10	2025/10	p.p. *	2025/10	p.p. *
EUSKAL AE	25.302	32,5	74.889	19,4	2,96	3,28	39,7	1,5	75,7	6,9
Estatukoak	13.139	19,2	41.209	14,8	3,14	3,26	-	-	-	-
Atzerriarrak	12.163	50,6	33.680	25,6	2,77	3,32	-	-	-	-
Araba/Álava	567	-47,3	10.456	14,6	18,45	8,48	29,9	2,4	77,6	0,0
Estatukoak	462	-51,9	7.200	16,9	15,57	6,40	-	-	-	-
Atzerriarrak	104	-8,4	3.256	9,8	31,00	26,09	-	-	-	-
Bizkaia	20.277	51,5	41.188	36,4	2,03	2,26	43,2	2,5	75,1	18,5
Estatukoak	10.424	36,5	20.915	30,3	2,01	2,10	-	-	-	-
Atzerriarrak	9.852	71,5	20.273	43,4	2,06	2,46	-	-	-	-
Gipuzkoa	4.459	-3,8	23.244	-0,6	5,21	5,04	39,8	-1,3	75,7	-2,9
Estatukoak	2.252	-7,0	13.094	-4,3	5,81	5,65	-	-	-	-
Atzerriarrak	2.206	-0,4	10.151	4,6	4,60	4,38	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeak puntuko aldeak

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetan izandako sarrera guztien % 48,1 eta ostatu-gau guztien % 45,0 atzerriko bisitariei dagozkie, urrian urte arteko % 50,6ko eta % 25,6ko igoerak izan ondoren, hurrenez hurren.

¹ Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimenduetako bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

² **Epigrafe honetan ez dira sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 2,96 egunekoa izan da 2025eko urrian, 2024ko urrian Euskal AEn izandako 3,28 egunekoaren azpitik. Mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 18,45 egunekoa izan da Araban, 5,21 egunekoa Gipuzkoan eta 2,03 egunekoa Bizkaian.

Azken hil honetan, plazen okupazio-maila % 39,7koa izan da Euskal AEn, 2024ko urrian baino % 1,5 puntu gehiago. Apartamentu bakoitzeko okupazio-mailak, berriz, % 6,9 puntu egin du gora, eta guztira % 75,7ra iritsi da.

2025eko urrian, Euskal AEko **aterpetxe turistikoek** urte batetik bestera % 19,2ko igoera izan dute sarreretan, eta guztira 26.774 sarrera izan dira eta 45.138 ostatu-gau, aurreko urteko urrian baino % 22,8 gehiago. Bizkaian 15.193 sarrera izan dira mota horretako establezimenduetan, Gipuzkoan 10.530 eta, azkenik, Araban 1.052.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Urria 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/10	m/m-12 (%)	2025/10	m/m-12 (%)	2025/10	2024/10	2025/10	p.p.
EUSKAL AE	26.774	19,2	45.138	22,8	1,69	1,64	41,3	6,6
Estatukoak	10.961	26,8	17.686	29,8	1,61	1,58	-	-
Atzerriarrak	15.813	14,4	27.453	18,7	1,74	1,67	-	-
Araba/Álava	1.052	66,4	1.272	35,2	1,21	1,49	25,0	2,2
Estatukoak	757	23,8	954	3,6	1,26	1,51	-	-
Atzerriarrak	294	1.358,4	318	1.477,1	1,08	1,00	-	-
Bizkaia	15.193	26,8	26.755	32,1	1,76	1,69	47,9	10,3
Estatukoak	6.306	48,3	10.796	59,8	1,71	1,59	-	-
Atzerriarrak	8.887	15,0	15.960	18,2	1,80	1,75	-	-
Gipuzkoa	10.530	6,9	17.111	10,0	1,62	1,58	35,3	2,9
Estatukoak	3.898	3,0	5.936	-0,2	1,52	1,57	-	-
Atzerriarrak	6.632	9,2	11.175	16,4	1,69	1,58	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2025eko urrian, aterpetxe turistikoetako egonaldien batez besteko iraupena 1,69 egunekoa izan da Euskal AEn, eta plazen okupazio-maila, urte batetik bestera ehuneko 6,6 puntu igo ondoren, % 41,3ra iritsi da.

Datu metatuak (2025eko urtarila-urria)

2025ean, orain arte, Euskal AEko **landetxeetan** 161.945 sarrera erregistratu dira eta 425.330 ostatu-gau egin dira, 2024ko aldi berean metatutakoak baino % 5,9 eta % 6,1 gehiago. Batez besteko egonaldia 2,63 egunekoa izan da, hau da, aurreko urtekoaren antzekoa, 2,62 egunekoa izan baitzen. Okupazio-mailari dagokionez, eta plazen arabera neurtuta, % 33,7ra iritsi da, eta 2024ko aldi berean metatutakoa, berriz, % 31,3ra iritsi zen. Gelen arabera neurtuta ere 2024ko aldi berean metatutakoa baino handiagoa izan da, kasu horretan % 36,2koa izan baitzen eta 2025eko hamar hilabete hauetan metatutakoa % 39,0koa izan baita.

Apartamentu turistikoei erreparatuta, urrira arte metatutako aldian 245.644 sarrera izan dira eta 718.338 ostatu-gau; horrek adierazten du 2024ko aldi berarekin alderatuta sarrerek % 32,6 egin dutela gora eta ostatu-gauek % 17,0. 2025eko hamar hilabete hauetan batez besteko egonaldia 2,92 egunekoa izan da, eta 2024ko aldi berean, berriz, 3,31 egunekoa izan zen. Plazen arabeko okupazio-maila % 41,1ekoa izan da, 2024ko aldi berekoa baino % 0,2 puntu handiagoa. Apartamentuen okupazio-maila % 72,6koa izan da, hau da, 2024ko aldi bereko okupazio-maila baino % 5,8 puntu handiagoa.

Aterpetxe turistikoei dagokienez, 2025eko hilabete hauetan 239.484 sarrera eta 429.485 ostatu-gau izan dira, 2024ko hilabete berberekin alderatuta sarrerek % 4,6 eta ostatu-gauek % 3,8 gora egin ondoren. Batez besteko egonaldia 1,79 egunekoa izan da, aurreko urteko aldi berean metatutako 1,81 eguneko egonaldia baino zertxobait txikiagoa. Azkenik, plazen okupazio-maila % 42,0koa izan da, 2024ko aldi metatu berean izandakoa baino % 0,7 handiagoa.

Informazio-oharra

ETHren inguruan emandako erantzunen tasa hilabete honetan **% 90,7koa** izan da landetxeetan, **% 85,3koa** apartamentu turistikoetan eta **% 90,4koa** aterpetxe turistikoetan. Eustatek inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahalegina eskertu die.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62